

**Ariketa hau test motako jarduera bat da. Galdera bakoitzak 3 erantzun posible ditu, eta bakarra da zuzena.**

1. Beste erakunde batzuekiko harremana (adibidez, Aldundiarekin) koordinatzeaz arduratzen den zuzendaritza arloa:
  - a) Alkatetza eta Talde Politikoak
  - b) Pertsonak Kudeatzeko Zuzendaritza
  - c) Zeharkako Zerbitzuak Koordinatzeko Zuzendaritza.
  
2. Zuzendaritza hau Udalaren abokatua bezalakoa da:
  - a) Lehendakaritza Zuzendaritza
  - b) Zuzendaritza Juridikoa
  - c) Udaltzaingoaren Zuzendaritza
  
3. Adierazi ZEIN DEN OKERRA:
  - a) Lehendakaritzako Zuzendaritza arduratzen da Herritarren Partaidetzarako Zerbitzuaz.
  - b) Pertsonak Kudeatzeko Zuzendaritzak bulegoko materiala erosten du.
  - c) Zuzendaritza juridikoak gure segurtasuna bermatzen du, kaleak zainduz eta delituak egitea prebenituz.

#### 4. Euskara Zerbitzua:

- a) Zuzendaritza batek eskatzen duenean, euskararen eta gaztelaniaren arteko ahozko eta idatzizko itzulpenaz arduratzen da.
- b) Euskara bakarrik hitz egiten duten pertsonak artatzeaz arduratzen da.
- c) Euskal kulturako ekitaldiak antolatzeaz arduratzen da, hala nola, pilota partidak edo euskal dantzak.

#### 5. Zuzendaritza hau udal aterpetxeez arduratzen da:

- a) Pertsonak Kudeatzeko Zuzendaritza.
- b) Gizarte Ekintzako Zuzendaritza
- c) Hezkuntza eta Gizarte Sustapen Zerbitzua.

#### 6. Kudeaketa Ekonomikoaren Zuzendaritza:

- a) Donostian bizi garenok zerbitzuengatik ordaindu behar ditugun zergetatik dirua biltzeaz arduratzen da.
- b) Udalaren aurrekontua egiteaz arduratzen da.
- c) Plan eta proiektu garrantzitsuak koordinatzeaz arduratzen da.

7. Donostiako sorospen-etxea zuzendaritza honen mende dago:

a) Hezkuntza eta Gizarte Sustapen Zerbitzua

b) Gizarte Ekintzako Zuzendaritza

c) Osasun eta Ingurumen Zuzendaritza

8. Prebentzio, Su Itzaltze eta Salbamendu Zuzendaritza:

a) Laneko arriskuen prebentzioaz arduratzen da.

b) Suteak itzaltzeaz eta salbamenduak egiteaz arduratzen da.

c) Pertsonak ingurumenaren alde sentibilizatzeaz arduratzen da.

9. Udalaren harreman publikoez arduratzen den arloa:

a) Alkatetza eta Talde Politikoak

b) Komunikazio-arloa

c) Euskara Zerbitzua

10. Barne Zerbitzu Orokorrez ere arduratzen den zuzendaritza da, adibidez, posta banatzeaz:

a) **Pertsonak Kudeatzeko Zuzendaritza.**

b) Lehendakaritza Zuzendaritza

c) Mugikortasun Zuzendaritza

11. Udaltzaingoaren Zuzendaritzak agente-talde bat du. Agente horiek:

a) Hondamendiak gertatzen direnean laguntzen digute, esaterako, uholde handiak gertatzen direnean.

b) **Gure segurtasuna zaintzen dute trafikoa antolatuz, kaleak zainduz...**

c) Laneko Arriskuen Prebentzioaren arduradunak dira.

12. Udaltzaingoak jartzen dituen trafikoko isunak biltzea da zuzendaritza honen eginkizunetako bat:

a) Zuzendaritza juridikoa

b) **Finantza Zuzendaritza**

c) Mugikortasun Zuzendaritza

13. Hiri Mantentze eta Zerbitzuetako Zuzendaritza arduratzen da:

a) Arratoiak edo intsektu-izurriak kentzeaz.

b) Kaleak, ur-sareak eta estolderia mantentzeaz.

c) Aurreko guztietaz.

14. Zuzendaritza hau arduratzen da udal-ondasunen zerrenda egiteaz eta eguneratzeaz:

a) Esku Hartze eta Kontabilitate Zuzendaritza.

b) Kudeaketa Ekonomikoaren Zuzendaritza.

c) Lehendakaritza Zuzendaritza.

15. Adierazi zein den erantzun ZUZENA:

a) Lehendakaritza Zuzendaritza arduratzen da Lan Eskaintza Publikoaz (LEP).

b) Hiri Mantentze eta Zerbitzuetako Zuzendaritzak osasun-kontrolak egiten ditu edariak erosten ditugun establezimenduetan.

c) Mugikortasun Zuzendaritza kaleak oinezkoentzat jartzeaz arduratzen da.